

# ZENBAKI ERLATIBOAK

5.

**DEF. :** **Batura** :  $a$  eta  $b$  zenbaki erlatiboen batura  $a + b$  zenbakia notatua da.

**PROP. :**  $a$  eta  $b$ -k ikur berdina baldin badute, orduan

$a + b$  zenbakiaren ikurra  $a$  eta  $b$ -rena da.

$a + b$  zenbakiaren zerotik distantzia  $a$  eta  $b$ -ren arteko zerotik distantzien batura da.

Adibidez :

$$(+5) + (+8) = +(5 + 8) = +13$$

$$(-5) + (-8) = -(5 + 8) = -13$$

**PROP. :**  $a$  eta  $b$ -k ez baldin badute ikur berdina, orduan

$a + b$  zenbakiaren ikurra, zerotik distantzia handiena duen zenbakiaren ikurra da

$a + b$  zenbakiaren zerotik distantzia  $a$  eta  $b$ -ren arteko zerotik distantzien kendura da.

Adibidez :

$$(+5) + (-8) = -(8 - 5) = -3$$

$$(-12) + (+15) = +(15 - 12) = +3$$

## Batuketaren propietateak

**PROP. :** Batuketa **trukakorra** da :  $a + b = b + a$

Adibidez :  $4 + (-5) = -5 + 4$

**PROP. :** Batuketa **elkarkorra** da :  $(a + b) + c = a + (b + c)$

Adibidez :  $-8 + [(-5) + 7] = [-8 + (-5)] + 7$

**DEF. :** Bi zenbaki aurkakoen batura nulua da.

$b$  zenbakiaren **aurkakoa**  $(-b)$  idatzen da eta idatz dezakegu :

$$b + (-b) = (-b) + b = 0$$

Adibidez :  $8 + (-8) = -8 + 8 = 0$

**PROP. :**  $a$  zenbakiari  $b$  zenbakia kentzeko,  $a$  zenbakiari  $b$  zenbakiaren aurkakoa gehitu behar da.  $a - b = a + (-b)$

**20. ariketa :** Ondoko zenbakiak kalkulatu :

$$A = 5 - (-4) \quad B = -10 - 5 \quad C = 15 - 20$$

*Aterabidea :*

$$A = 5 - (-4)$$

$$A = 5 + 4$$

$$A = 9$$

$$B = -10 - 5$$

$$B = -10 + (-5)$$

$$B = -15$$

$$C = 15 - 20$$

$$C = 15 + (-20)$$

$$C = -5$$